# EGELAPI MOODLE 4.1ra EGUNERATUKO DA

## Interfaze berria




## Nabigazio-menu berria

Hemen azaltzen dira orain, aurreko bertsioan ezkerreko alboko menuan zeuden aukera batzuk, hala nola Hasiera eta Aginte-panela.




## Edizioa ikastaroan

Ikastaroaren edizioa aktibatu eta desaktibatu egiten da goian eskuinaldean azaltzen den etengailu baten bidez.




Eremu horretan, orain, erabiltzailearen profila eta erabiltzaile Aukerak zehazteko aukera aurkituko ditugu.




Hizkuntza ere azkar alda dezakegu.




## Ikastaroaren nabigazio-menu berria

Gehien erabiltzen diren tresnetarako zuzeneko sarbidea ematen duen menua: Ezarpenak (ikastaroaren ezarpenak), Partaideka, Kalifikazioak eta Txostenak (agerraldiak, ikastaroaren jarduera, ikastaroan partaidetza).

Gainerakoak, gutxiago erabiltzen direnak, bigarren mailan daude "Gehiago" fitxan bilduta (galdera-bankua, eduki-bankua, dominak, iragazkiak, Jaitsi ikastaroko edukiak eta inportazio- eta backup-funtzioak).




Ikastaroko nabigazio-menu hau baliabide/jardueren menu espezifikoa bihurtzen da horietara sartzen garenean.




**Ezkerraldeko alboko menua** (laster eskuragarri)

Ikastaroaren aurkibidea erakusten du, eta atal eta jardueren artean nabigatzeko aukera ematen du.




## Eskuinaldeko alboko menua

Lehen ikastaroa kudeatzeko menuan zeuden aukeretako batzuk eskuin-alboko blokeetan daude. Adibidez, ikasglea birtualen kudeaketa, jarduerak... etab.

Goiko eskuineko izkinan dagoen “Editatu” sakatuz, bloke hauetako bat gehitzeko aukera erakusten du.




## Lan-eremu moldagarria

Lan-eremu moldagarriak kontzentrazioa errazten du. Ikastaroaren aurkibidea eta eskuineko blokea ixteko aukerak asko errazten du edukian arreta jartzea.




Gaiak tolestuta zabaldu ere egin daitezke, desplazamendu bertikala murrizteko.




## Jarduera eta baliabideetarako ikono berriak

Jardueren eta baliabideen ikonoak koloreen arabera birdiseinatu eta estandarizatu dira, erabiltzaileei motaren arabera azkar identifikatzen laguntzeko.

.

- Arrosa: ebaluatzeko jarduerak eta baliabideak, hala nola zereginak eta galdetegiak
- Berdea: komunikazio jarduerak eta baliabideak.
- Gorria: Lankidetzarako jarduerak eta baliabideak
- Morea: kudeaketa jarduerak.
- Urdina: eduki jarduerak eta baliabideak




## Irakasgaiko baliabideak eta jarduerak kudeatzea

Baliabide edo jarduera bakoitzaren parametroak eskuinaldean agertzen diren hiru puntuen gainean sakatuz erakusten dira. Gainera, beste ekintza batzuk ere egin daitezke: elementua mugitu, bikoiztu, ezkutatu, etab.



## Baliabide eta jarduerak mugitu

Orain, errazagoa da atal batetik bestera baliabideak eta jarduerak mugitzea. Kurtsorearen laguntzaz baliabide edo jardueran sakatu eta ezkerreko aurkibidean nahi den atalean askatuz. Horretarako, edizioa aktibatuta egon behar da.




Halaber, edizio moduan, ikastaroan zehar baliabide edo jarduerak lekuz aldatzeko “Mugitu” aukera erabil daiteke. “Mugitu” sakatuz gero, kurtsoaren aurkibidea duen leihoa agertuko da, eta elementua aukeratutako lekura mugituko du. Metodo hori erabilgarria izan daiteke fitxa-formatua duten ikastaroetan, non zailagoa baita atal batetik bestera mugitzea.




"Mugitu eskuinera" eta "Mugitu ezkerrera" doikuntzak, baliabideak eta jarduerak eskuinera edo ezkerrera mugiarazten dituztenak koska-efektua edo paragrafo barneratua sortzeko, egun gutxi barru egongo dira eskuragarri.




## ”Ezkutuan ikasleentzat” markaren itxura berria

Etiketa laranja bat ageri da, “ezkutuan ikasleentzat” irakasgaia ezkutuan dagoenean. Aurreko bertsioan, kolore grisaren bidez adierazten zen ezkutuan zegoela.




Baliabideetan edo jardueretan ere marka bera dago.




## Irisgarritasun-aukerak profilean

Gure profilera sartuz, irisgarritasun-aukerak konfigura ditzakegu.


Irisgarritasuna
Letra-mota
Letra-mota lehenetsia
Dislexikoentzako letra-mota
Gaitu irisgarritasunaren tresna-barra
Gorde
Utzi
1
2
3
EU
IRAKASLE 001 barruan da
Edizioa
Irisgarritasuna
Profila
Kalifikazioak
Egutegia
Mezuak
Fitxategi pribatuak
Txostenak
Aukerak
Aldatu rola...
Irten